noaua

FANFARRIKANT BRASS BAND TALDEA: "FANFARRE ETA KANTU-JIRAREN ARTEKO ZERBAIT ESKAINTZEN DUGU"

Larunbat eguerdian kalejiran aterako dira / 06-07



ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Jaiak amaitu eta biharamunean abiatuko da Udajolas / 10



NOAUA

Gidabaimena euskaraz ateratzeagatik saritua / 11



NOAUA

Euriak ez zuen kalezartarren jai-girorako gogoa zapuztu / 12-13



SANTIXABEL JAIAK, GEHIGARRI BEREZIA

'Pauso Berriak' laneratze programa, beste lau urtez luzatua / 05

B&A Inmogest



Finka administratzailea
Aholkularitza zerbitzua
Inmobiliaria
Aseguruak

943 57 36 93
Eusko Gudari 35, Orio



CEPA Lasarte
HHI Helduen eskola

Matrikula epea
Ekainaren 17tik 27ra eta irailaren 2tik 13ra

- Hezkuntza orokorra
  (Irakurketa, idazketa, oinarrizko ingelesa, nutrizio osasuntsua, Historia...)
- DBHko titulua
- Oinarrizko euskara
- Gaztelania atzerritarrentzat
- Irteera didaktikoak

(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43)



NOAOA
BIDAIAK



Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

FUNERARIA GONZALEZ
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



2023-2024 kirol denboraldiak berea egin du

Merezitako oporraldian murgildu dira herriko kirol taldeak. Aurretik, Kalezarko festen asteburuan egin ohi duten bezala, afaritarako elkartu ziren Usurbilgo frontoian.

Kirol hitzorduak jaietan
Ekainak 27, osteguna
16:00 Pala txapelketa.

Ekainak 29, larunbata
12:30 Herri kirolak.

Ekainak 30, igandea
11:00 Bola txapelketa.

Uztailak 2, astelehena
17:00 Pilota txapelketako finalak.



Usurbil FT eta Usurbil KEko kideek afari batekin agurtu zuten denboraldia.

Garbigune mugikorra, Zubietan

Ekainaren 27tik aurrera, garbigune mugikorra Zubietan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Uztailaren 4an garbigune hau Txokoaldera eramango dute.

1950. urtean jaio zirenei deia

Datorren urtean 75 urte beteko dituzten herrikideak biltzeko asmoa dute. Parte hartu nahiko luketen guztiekin hartuemanetan jarri nahi dute. Horregatik, bi telefono zenbakiotara deitzeko gonbita egin diete 1950ean jaiotakoei: 645 736 726 / 678 398 852.

Gorabeherarik ez langabetu kopuruan

Apirileko langabetu kopuru bera erregistratu zuen Estatuko Enplegu Zerbitzuak maiatzean Usurbilen, 196, martxoan 211 eta hilabete geroago 15 langabetu gutxiago zenbatu ondoren.

Beterri Buruntzan eta Gipuzkoan aldiz, gutxitu egin da langabetu kopurua.

Maialen Lujanbioren saioa Aginagako Eliza Zaharrean

Maialen Lujanbiok *rr6-errre(AH)ala* saioa eskainiko du uztailaren 18an Aginagako Eliza Zaharrean. Sarrerak 6 eurotan eskura daitezke usurbilkultura.eus plataforman. NOAUA! ko bazkideek 4 eurotan, baina sarrera NOAUA!ren egoitzan eskuratu beharko dute.

noaua
TOKIKOM

Argitaratzailea: Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria: Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua: Aritz Lasarte, Itxaso Orbegozo, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna: Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaileak: Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia: Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako: erredakzioa@noaua.eus

Gipuzkoako Foru Aldundia
Usurbilgo Udala

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE

Azalaldatzen (9)

Lausengua zen ala ez, auskalo. Dakidan bakarra da hemen nagoela orain; beraz, abisu bat besterik ez zen. Aurretiazko abisu bat. Abisu guztiak dira aurretiazkoak, ez? Gainerakoak, balitz, balego, baleza. Alferrik da hipotesietan aritzea.

Agian, buelta erdia eman, eta mailu batekin kolpatuko ninduten buruan. Agian, borra batekin. Kolperen bat jaso nuen, eta ez dut horren zalantzarik. Gero, ditxosozko aulki honi lotuta esnatu nintzen. Genero beltzeko istorio bateko pertsonaia dirudit, eta zer-nolako ohorea nirea! Umorez hartu beharko.

Oinak barrura sartzen nabaritu ditut. Pentsatuko zuten zer egin nirekin. Hizketan hasi zaizkit. Ez zaitut aspertuko, irakurle, bahitzailearen eta bahituaren arteko elkarrizketa klixea izan da. Uko egin ezinezko tratua eskaini didate —horretan ere mafioso hutsak dira—, eta kontzeptuak argi dioen moduan, ezin uko egin. Beste buru-kolpe bat eman didate tratuaren xehetasunak argitu ondoren, eta orain Bordatxoko errotondan nago.

Eta azalaldatze guztiak direnez zerbaitenak, hau, Ugaitz Agirre Zapirainena.

"Eusko lur gainean zutik, zuon, herritarron aurrean, Usurbilgo haginaren azpian, bahitzaileak gogoan, intimitatearen errespetuz, hitza ematen dut ez dudala inoiz gehiago herritarren lepotik idatziko, ez bizi direnetatik, ez hil direnetatik, ez biziko direnetatik. Zin dagit orain artean idatzitako guztia fantasiaren fruitu izan dela, eta aipatu izenak edota iradoki pertsonaiak inoiz ez direla halako egoeratan egon. Zin dagit, herritarrok, eskua jasorik, ez dudala zuen bizitzan oinarritutako ezer idatziko, eta beraz, lasai egon zaitezkete koaderno batekin kalean ikusitakoan."

Hori zin egitera behartu naute ekitaldi publikoan. Kontrara, ez nintzateke gai izango orain arteko guztia kontatzeko.

Eta orain etxera noala pentsatzen nago: Istorio baterako, ze bukaera kaka zaharra! Istorioak bukatzen direnean, bi aukera omen daude: heriotza edo ihesa. Kasu honetan, irrigarriki etxera itzultzea tokatu da. Orain zer idatzi beharko dut hemen?

A, bai! Ahaztu zait. Zin egitearekin batera, Usurbilgo sagardogileek agiria kaleratu dute. Hitzez hitz traskibituko dut:

"Usurbilgo sagardogileok adierazi nahi dugu sagardoak ez duela inolako substantziarik, naturalak baizik. Sasi idazle honek aldizkari honetan idatzitako kontu guztiak asmazio hutsak dira, eta ez dugu inondik inora herritarrik kontrolatzen. Sagardoa herriko produktu izarra dugu, eta hortaz, hura goratzera eta edatera animatzen zaituztegu.

"ETA AZALALDATZE GUZTIAK DIRENEZ ZERBAITENAK, HAU, UGAITZ AGIRRE ZAPIRAINENA"

Fakenews garai hauetan, gauza guztiak sinetsi ohi dira, baita gauzarik surrealistenak ere. Hala ere, eta gure ohorea eta izen ona zikindu nahi izan baditu ere herritar honek, ez dugu bere aurkako neurririk hartuko, berak bere zinari eusten dion artean. Beraz, altxa edalontziak eta goza dezagun gure sagardoaz!".

Agian nire buruari barre egin beharko diot. Poetaren abenturak idatzi —spam, autopublizitatea—, eta poeta ez poetak nolako buruhausteak dituen kontatu. Agian hori egin behar dut, bai. Norbere buruari barre egitea baino gauza osasuntsuagorik ez dago, ezta? Horregatik ez didate ezer leporatuko, eta autoparodiarena gauza interesgarria izan daiteke euskal literaturan.

Kontua izango da zer idatzi datorren kurtsoan. Uda pentsatzeko daukat, baina nola egin usurbildarrei buruz idazteko usurbildarrei buruz hitz egin gabe. Eta markesari buruz idazten badut? Ziur bizi den tokian bizi dela, ez dela ohartu ere egingo. Irakurriko ote du NOAUA? Imajinatu, teak eta pastak hartu bitartean, NOAUA irakurri eta berari buruzko istorio bat irakurtzen duela.

Euskotreneko udako ordutegia indarrean da

Euskotrenek udako ordutegi berria indarrean du aste hasieratik. Urtero moduan, Usurbil zeharkatzen duen zerbitzua indartu egingo dute udako asteburu eta jaiegunetan; 30 minuturo eskainiko da zerbitzu hau, Usurbildik Oriorantz 14:04-21:04 artean eta 15:24-22:54 artean Donostiarantz.

Informazio gehiago:
euskotren.eus
944 333 333

Bus-taxiaren udako ordutegia

Aurreko urteen antzera, uztailaren 1ean jarriko du martxan udalerriko txoko ezberdinak lotzen dituen doako garraio zerbitzuak udako ordutegia. Urtero moduan, 7:30ean, 10:30ean eta 13:30ean abiatzen diren zerbitzuei eutsiko die bus-taxiak uztailean; arratsaldekoak (15:30/19:00) bertan behera geratuko dira. Abuztuan eten egingo da "Bidez-bide" izeneko zerbitzu hau. Irailaren 1etik aurrera ohiko ordutegira itzuliko da.

Informazio gehiagorako:
630 643 596

Lurraldebuseko udako ordutegia

Oraindik ezer zehaztu ez duen arren, aurreko urteetan abuztuan izaten du Lurraldebusek, uda parteko ordutegia indarrean.

Informazio gehiagorako:
900 300 340
urraldebus.eus



'Pauso Berriak' laneratze programa, beste lau urtez luzatua

Usurbilgo Udalak, Gureak eta Atzegik Pauso Berriak programari beste lau urtez segida ematea erabaki dute, lankidetza hitzarmena berritu ondoren.



Akordio honi esker, Asier Berraondo Ayerrak udaletxean jarraituko du lanean.

2010ean Atzegik eta Gureak abiarazitakoa da Pauso Berriak egitasmoa. "Bere xedea adimen desgaitasuna duten pertsonak euren garapen pertsonal eta soziala ahalbidetuko duten lanpostuetan txertatzea da. Hala, ageriko eredu positibo eta sozialki eraldatzaileak sortzeko eta merkatu arruntean lanbideratze osoa lortzeko".

Programa honekin bat egin zuen Udalak duela bi urte. Beste lau urtez bultzatzen jarraitzeko lankidetza hitzarmena berritu dute Atzegik eta Gureak-ek Udalarekin. "Ekimena ingurune arrunteko okupazio-zerbitzuaren barruan kokatzen da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartuta dago. Izatez, duela bi urte egin zuen bat udalak, lehenengo aldiz, horrekin: orain beste lau urtez jarraitzeko hitzarmena sinatu dute. Udalak 4.300 euroko ekarpena egingo dio programari hitzarmena indarrean den urte bakoitzean".

Langile baten kontratazioa

Programa honen baitan, duela bi urte, "Asier Berraondo Ayerra lasarte-oriarra kontratatu zuen udalak. Ordutik, hainbat sailetan ibili da lanean, eta halaxe jarraituko du: kale garbiketan, liburutegiko hainbat zereginetan, zein gizarte zerbitzuetako eta udaletxeko era askotako lanetan.

Aldaketa bakarra da lehen praktikaldia egiten ari zela, eta, orain, zerbitzu okupazionalean hasi dela. Denborak aurrera egin ahala, Berraondo autonomia garatzen ari da, lanerako zein Usurbilera joan-etorriko bidaiak egiteko. Horrez gain, erreferentziazko bitartekari okupazional gisa jarduten duen langile bat izendatua dute: prozesuan zeregin aktiboa du, eta erabiltzailearen eta prozesuaren talde koordinatzailearen arteko zubi-lanak egiten ditu".

UDALAK, ATZEGIK ETA GUREAK-EK BESTE LAU URTEZ LUZATU DUTE HITZARMENA

Odol ematea, astebete beranduago

Usurbilen bi hilean behin lehen astelehenetan izaten da odola emateko aukera. Urte hasieran finkatzen duten egutegia eskuartean, hurrengo hitzordua uztailaren 1ean egokituko litzateke berez, baina, ohi bezala, urtero festak tarteko, astebete atzeratzen dute odol-ematea.

Uztailaren 8an

Datorren saioa, beraz, uztailaren 8an izango da, arratsaldez, 16:30-20:10 artean Udarregi ikastolako eraikin gorriko erdiko aretoan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela honako telefono zenbakira: 943 007 884.

Odola emateko bete beharreko baldintzak:

-18-65 urte artean izatea.
-50 kilotik gora pisatzea.
-12 urte baino lehenago hepatitisa izan, kolesterol maila altua izan, baraurik egon ez edota ohiko botikaren bat hartzen baduzu ere, odola eman dezakezu.
-Emakumezkoek urtean gehienez hiru aldiz eman dezakete odola, gizonezkoek gehienez lautan. Odol emate baten eta hurrengoaren artean, gutxienez bi hilabeteko tartea igarotzen utzi beharra dago.

Autxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

txirriStra
·PLATER KONBINATUAK
·BOKATAK ·PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO



Fanfarrikant Brass Band taldeko kideak, Aitzagaren urteurren festako kontzertuan.

"Argi utzi nahi dugu ez garela txaranga bat, fanfarrea gara"

FANFARRIKANT BRASS BAND TALDEA

Aitzagaren urteurren festarako sortu bazen ere, Fanfarrikant Brass Band taldeak hirugarren kontzertua eskainiko du herriko festetan. Horra nondik norako nagusiak.

Usurbilgo jaietan joko duzue, baina azken hilabetean aukera izan dugu Aitzagaren urteurren festan zuek ikusteko. Zein musika mota edo zer da eskaintzen duzuena oraindik ikusi ez zaituztenentzat.

Fanfarrikant taldea fanfarre bat da, txaranga moduko bat, baina instrumentu gehiagorekin: akordeoia, biolina, biola, klarinetea, gitarra... txaranga batean normalean egoten ez diren instrumentu horiek. Kant hori kantu talde bat behar dugulako da, gurekin batera abestuko duen jendea.

Hamazazpi pertsona gara instrumentua jotzen eta behar ditugu beste hainbeste abesteko edo gehiago. Guk ezin dugu kantatu instrumentuak jotzen ditugun bitartean.

Nahasketa bitxi horretatik sortu gara nolabait. Brass Band horren kontuan, txaranga moduko batzuk izaten dira Ameriketako estiloan kalean jotzen dutenak. Gu urruti gaude horretatik.

"USURBILEN TXARANGA FALTA DELA ASKOTAN ESAN IZAN DUGU, HOR BADA HALAKO HUTSUNE BAT"

Nondik sortu da proiektu hau? Aztarrikant kantu-jira horiekin lotura badu nolabait?

Bai. Fanfarre eta kantu-jiraren arteko zerbait da. Publikoa ikuskizunaren parte sentitzeko amu bat behar genuen ingurukoak abesten jartzeko. Lan hori Aztarrikako gazteek baino nork eramango dute hobeto?

"ARRANTZAN ATERA GINEN ETA EZAGUTZEN GENITUEN INSTRUMENTISTEI AMUA BOTA"

Herriko gazteak abesten jarri ditugu eta izena ere fusio horren erakusgarri da. Asteburu leherkor batean sortu ginen. Arrantzan atera ginen sortzaile batzuk eta ezagutzen genituen instrumentista guztiei amua bota genien zerbait sortzeko. Hala, lau izatetik hamalau izatera pasatu ginen parranda batean. Lehenagoko parranda batean, hiru edo lau lagun hizketan aritu ginen musikarekin zerbait egiteko, haizezko instrumentuekin abiatuta, batik bat. Bertsio Gauerako zerbait prestatu nahi genuen hasieran, baina proiektu handiago baten beharra sentitzen genuen. Usurbilen txaranga falta dela ere askotan esan izan dugu, hor badagoela halako huts bat edo. Aitzagaren urteurrenerako txaranga bat sortzeko halako ideia bat ere bazuten beste batzuek, baina proiektu handi baterako gogoa geneukala aipatu eta fanfarrearen ideia bota genien. Hala hasi ginen forma hartzen eta Aitzagaren urteurren festarako taldea osatzen. Hori bai, argi utzi nahi dugu ez garela txaranga bat.

Lagun kuadrila polita elkartu zarete, baina nahiko jende anitza zaretela esan daiteke. Nolatan zarete horrenbeste lagun eta nola elkartu zarete?

Sorreratik kalean saretutako taldea gara. Oso ezberdinak gara, giro ezberdinetan ibiltzen direnak eta hori da gure taldearen giltza. Adinez ere ezberdintasun handiak ditugu eta gutako askok ez dugu inoiz beste askorekin behin ere jo, eta ezagutu ere ez ia. Hori da proiektu hau polit egiten duena. Instrumentuak ere oso anitzak gara: saxofoia, klarinetea, tronpeta, tronboi eta tronpetaren arteko hibrido bat, tronboia, tuba, bonboa, biolina, biola, gitarra, txistua, txirula, kaxa, shakerra eta akordeoia. Fanfarre kontzeptua landu nahi izan dugu txarangetatik haratago joanda. Taldeak pertsonalitate eta gorputz

⟶ gehiago duela iruditzen zaigu horrela.

Horrenbeste jende nola elkartzen zarete entseguak egiteko?

Lehen kontzertua eman genuenean, ordura arte ez ginen inoiz denok elkartu. Egun horretan ere, goizean ez ginen denok elkartu eta arratsaldean, orduerdiko saio bat egiteko lortu genuen denok lehen aldiz elkartzea. Oso zaila da denok batera aritzeko. Antton ari da abestiak moldatzen eta partiturak banatzen denoi, ikaragarrizko lana egin du horretan. Gehienok musika badakigu, badakigu partiturak irakurtzen eta behin oinarrizko partitura izanda inprobisa dezakezu horrekin edo moldaketak egin. Partiturarik edo inor horretaz arduratuko ez balitz, ezinezkoa litzateke entsegurik gabe ezer egitea eta entseatzeko aukera izanda ere, ikusi beharko litzateke zenbaterainoko luzera eta kalitatea izango luketen. Orain emanaldiak datozela ikusita, entsegu batzuk egiten ari gara astean behin edo bitan elkartuta. Maiztasun batekin zerbait egin beharra dago kantak praktikatu eta berriak ikasteko aurrekoak ahaztu gabe. Anttonek prestatzen ditu abestiak, baina horien aukeraketa denon artean egiten dugu. Euskal kanta herrikoiak dira gure ardatz nagusia kalean abesteko modukoak izan daitezen. Abesti klasikoagoak eta modernoagoak hautatzen ditugu. Taldeko zaharrenentzat abesti asko behin ere entzungabekoak dira eta, agian, gazte batzuentzat zaharrenak ere ezezagunak, baina denentzat dago lekua gurean. Orain arteko herrikoiak eta gerora herrikoiak izango diren abesti garaikideak jotzen ditugu, orokorrean.

Zuen arteko joskera nolakoa ari da izaten horren jende ezberdina eta instrumentu aniztasun horrekin?

Pixkanaka ari gara. Entseguetan bakoitza bere aukeren arabera gehiago azaldu da edo ez. Gehien agertzen direnekin harremanak estuagotzen ari dira, eta kontuan hartu behar da batzuekin lehenagotik ere bageneukala harremana sortuta. Aitzagako urteurrenean, bazkaltzeko mahaiaren inguruan elkartu ginen eta horko giroak ere harremanak sortzen ditu. Oso berezia izan zen egun hura guretzat, jendea gogotsu zegoen eta ilusioz hartu genuen. Hamazazpi lagun elkartze hutsa halako ezberdinak izanda erabateko arrakasta da, benetako herrigintzaren ispilu garbia. Euskal kulturaren inguruan eta hogei bat abeslarirekin, herriari halako zerbait eskaintzeko aukera izatea zoragarria da.



Fanfarrikant Brass Band taldea, Txirikordaren inaugurazio festan.

"HAMAZAZPI LAGUN ELKARTZE HUTSA ERABATEKO ARRAKASTA DA, BENETAKO HERRIGINTZA"

Festetarako abesti gehiago aurreikusten dituzue edo zein da asmoa?

Nahiko lan badugu orain artekoarekin. Saiatuko gara pare bat abesti gehiago sartzen, baina ikusi beharko dugu denboraz nola gabiltzan. Lan handia eskatzen du horrelako zerbait prestatzeak, ordu askotako lana da. Pixkanaka joango gara abestiak gehitzen. Aitzagako urteurren festaren aitzakian sortu ginen, baina aurrera jarraitzeko proiektu bat izango da. Ez dugu horrenbeste lan hartu egun baterako bakarrik. Zikiro janean joko dugu, baina oso garbi ere ez dago bazkariaren aurretik, bitartean edo ondoren izango den. Ez zutik edo eserita izango den ere. Kuxkuxtu etortzen zenean eserita zikiro-janean jotzen zuten, baina ez dakigu. Arratsaldean txaranga egongo da, beraz, oraindik ez diogu formarik eman.

"ASMOA EZ DA ONDO JOTZEA, BAIZIK ETA ONDO PASATZEA ETA HERRIGINTZA SUSTATZEA"

Aitzagako urteurren festatik jende gehiagok proposatu dizue taldean parte hartzea?

Bai, hiru bat pertsona hurbildu zaizkigu gustura parte hartuko luketela esanez. Poza ematen du horrek. Taldekide asko aspaldian kajoian gordeta zeukaten instrumentu hori atera, hautsa kendu eta zerbait egitera animatu dira. Beste batzuk, agian, musikari lotuta urte mordoa daramatzagu, baina ez gara ez profesionalak ez onak instrumentuak jotzen. Denetik daukagu. Asmoa ez da profesionalizatu eta ondo jotzea, besterik gabe ondo pasa eta herrigintza sustatzea.

Datozen hilabeteetarako edo kontzertuak lotu dituzue edo zein da aurrera begira daukazuen asmoa?

Momentuz Tuterako jaietara joateko gonbidapena jaso dugu. Autobusak antolatzen hasita gaude joateko, eta oraindik erabakitzen ari gara pisu bakarrekoan kabituko garen edo bi pisukoa beharko dugun. Taldeko tronboijolea tuterarra da, Usurbilen bizi da orain, eta hark lortu du kontzertu hori. Udazkenerako beste herriko eragile batekin elkarlanean zerbait egiteko asmoa ere badaukagu. Momentuz bi horiek. Hala ere, kontuz ibili behar dugu herrian askotan gertatzen den bezala taldea ez erretzen. Talde berriren bat dagoenean, herriko eta auzo guztietako jaietatik pasatzen da maiz, eta hori saihestu nahi dugu. Ondo dosifikatu nahi dugu. Ikusi beharko dugu hortik aurrerakoa.



Diana Carolina Bastidas eta Amaia Martiarena.

Hartuemanetatik zubi berriak eraikitzen

Lehen ekinaldia amaitzear diren honetan, HarEmanek lortu du abiapuntuan finkaturiko helburu nagusia; bertan bizi nahiz Usurbila etorritako herrikideak hartuemanetan jarri eta hortik herri inklusiboago bat izate aldera, sorterrien Usurbil saretzen joatea.

Harremanduz, zubi gehiago eraiki eta kontaktuen sarea zabaltzea. Horixe zuten xede nagusia, Usurbilen bizi direnak hona bizitzera datozenekin hartuemanetan jartzen dituen HarEman egitasmoaren sustatzaileek ikasturte hasieran. Lehen ekinaldia amaierara heldu den honetan, helburua bete dela adierazi digute Usurbilgo Udalaren eskariz dinamizazio lanetan jardun duen Zabalduz kooperatibak baita parte hartzaileek ere.

Zubi gehiago eraikitzen

"Balantzea oso ona da", nabarmendu dio NOAUA!ri Zabalduz-eko ordezkari eta egitasmo honen dinamizatzaile Loira Manzanik. Pausoa eman dutenek naturalki eta horizontaltasunez eraiki dituzte harremanak. Zazpi bikote aritu dira, baina hamalau kideko hartueman sarea handitu egin da, denborak aurrera egin duen heinean. "Zubi gehiago eraiki dira. Adibidez, badira HarEmani esker, Emakumeen Etxea ezagutu eta bertako eskaintzan izena eman dutenak, edo euskara ikastea erabaki dutenak. Edo beste leku edo pertsona gehiagotara gerturatzeko ahaldundu direnak", Loirak azpimarratu duenez.

Garrantzitsutzat jo du bereziki hurbilketen gaia. Izan ere, "askotan gertatzen da, bere lekuan geratzen direla migranteak eta askotan ez dute sentitzen eskubiderik dutenik espazioak okupatzeko". Horri lotutako hainbat kontu azaleratu ditu hain zuzen, mentoretza programa honek. "Diagnostikatzen lagundu du herrira bizitzera datozenek bizi duten bakardade handia, deserrotzea, segurtasun falta

"ASKO EMAN DIT PROIEKTUAK, LAGUN BAT, BIZI NAIZEN HERRIKOA SENTITZEA"

AASRAF AAFER, MENTORATUA

"BETEGARRIA DA PERTSONA BATI BERA BILATZEN ARI DENA EMAN AHAL IZATEA"

AMAIA MARTIARENA, MENTOREA

herria haiena dela sentitzerakoan. Mentoreen kasuan, beste errealitate batzuk ezagutu eta norbere herria beste leku batzuetatik datozenekin partekatzeko aukera izan dute, oso aberasgarria dena". Proiektuak fokua non jarri behar den lagundu duela gaineratu du. Esaterako, herrian bizi direnen aldetik boluntarioak falta izan dira edota bi bikoteren hartuemanak ezin izan du aurrera jo, "mentoratuak zaintza lanetan dabiltzalako". Eskerrak helarazi dizkie Udalari eta parte hartzaileei, egitasmo honetan izan duten inplikazioagatik. Oroitarazi duenez, "konpromiso maila handia eskatu eta norbere erosotasun zonaldetik ateratzea eskatzen duen egitasmoa da", gogorarazi du Loirak.

"Elkarri aportatzen diogu"

Horren lekuko lerrootan elkarrizketatu ditugun HarEmanen inplikatu diren bi bikoteak; Usurbilen bizi diren eta udalerri honetara berriki bizitzera etorritako bina lagun. Testu hau ilustratzen duten argazkietan dituzue Diana Carolina Bastidas eta Amaia Martiarena batetik, eta Aasraf Aafer eta Mattin Iribar bestetik. Lau herrikideok hilabeteotan bizi izandako esperientzia oso modu argian, onuragarritzat jo dute. "Asko eman dit proiektuak, lagun bat, bizi naizen herrikoa sentitzea", adierazi dio NOAUA!ri Aaferrek. "Elkarri aportatzen diogu", gaineratu du berarekin harremandu den Iribarrek; "niri ere beste herri ikuskera bat eman dit, kanpotik datorrenarena; nola sentitzen den, nola ikusten duen herria, nola hartzen duen herriak bera".

Maila pertsonalean, Amaiak Carolinaren esker ona aipatu du. "Betegarria da pertsona bati bera bilatzen ari dena ematea. Niri asko aportatu dit". Amaiak eta Mattinek Usurbilen bizi diren herrikide gisa parte hartu dute HarEmanen, Carolinarekin eta

Aasrafekin hurrenez hurren. Bastidas Ekuadorretik heldu zen azaroan. Leku, kultura berriak ezagutzeko gogoz heldu zen, baina hasieran, herri txiki ezezagun batera etorri berritan, "ez dakizu zer egin, norekin hitz egin, norekin atera". Horregatik, aukera ederra iruditu zitzaion HarEmanen parte hartzeko aukera izatea. "Aukera bat da eskaintzen zaiguna, adierazteko, falta zaigun konpainia izateko. Etorri berritan denbora asko ematen dugu etxean", azaldu dio NOAUA!ri Carolinak.

Modu berean mintzatu da baita Marokotik heldutako Aasraf. Zortzi bat hilabete daramatza gure artean. Familia babesik ez duten 18-25 urte arteko gazteak laguntzen dihardu Trapezista programaren bidez. "Hasieran, ia inor ez nuen ezagutzen, herriko supermerkatuak baino ez". Horregatik, gaineratzen zuenez, "herrian bizi garenez, jendea, kultura ezberdinak ezagutzeko" aukera aparta da egitasmo hau. Izan ere, erraztu egiten du Mattinen esanetan, "kanpotik datorren jendea herriko kulturan txertatzea".



Aasraf Aafer eta Mattin Iribar.

Korrikan batera

Mattin eta biak naturalki joan dira ezagutzen hilabeteotan. zaletasunak eta bizi esperientziak partekatu, herria ezagutzen hasi eta Korrikan batera lasterka amaitu zuten. "Korrika heltzean gure lagunekin etortzera gonbidatu nuen. Bere lagunarekin etorri zen Aasraf", kontatu digu Mattinek. Esperientzia gustuko izan eta lasterketa Donostiatik igaro zenean, "gustatu eta berriz parte hartu genuen", Aasrafek oroitarazi duenez.

"Datorrenari irekiak egotea"

Ildo beretik, naturaltasunez eraiki dute baita hartuemana Amaiak eta Carolinak. SOS Arrazakeriak antolaturiko bazkari baten bueltan, bere garaian Carolinaren ama ezagutu zuen Amaiak. "Sorpresa oso atsegina izan zen jakin nuenean nire ama ezagutzen zuela Amaiak", Carolinak gogoratu duenez.

Elkarrengana gerturatzeko abiapuntu hau izan zen, hortik aurrerakoak naturalki sortzen joan ziren. "Lehen egunean, non geratu ezagutzen ez duzun pertsonarekin? Ibiltzea oso gustuko dut eta ibili bitartean, denak hobeto funtzionatzen du", Martiarenaren esanetan. Santueneatik Aginagara ibilian elkar ezagutzen joan ziren. Harremanotan antzeko pertsonak izatea ez zaio garrantzitsua iruditzen Amaiari, baina bai "datorrenari irekiak egotea". Izan ere, bere ustez, "aukera bat da HarEman jendea eta kultura berriak ezagutzeko. Gure kultura datozenei ireki behar diegu eta gu irekiak egon behar gara kultura berri horri harrera egiteko".

Loirak aipaturiko harremanotatik haratagoko zubiak eraikitzearen adibidea da Carolina. HarEman egitasmoaren bidez, ireki berri duten Emakumeen Etxera heldu da eta harreman sarea are gehiago zabaldu du. "Biodantza klaseetan parte hartu dut. Beldurrik gabe agertzen ikasi dut. Ni neu izaten ikasi dut, esango dutenaz pentsatzen jardun gabe". Herri honetako bizitzan barneratzeko urrats gehiago ematera doa, gainera. "Haien bidez, ziurrenik euskara klaseekin hasiko naiz. Gauza berriak bizitzeko irekia nago".

Sokadantzan

Haien arteko harremana ez da etengo ikasturtea amaitu arren, baina hilabeteotako dinamikari itxiera kolektibo bat eman asmo diote topaketa batekin. Halere, aurretik, dantzan ikusiko dituzue, hastear diren Usurbilgo jaiotan. Uztailaren 2an, Santixabel egunez sokadantza eskaintzen diote herriari udal ordezkariek. Urtero herritar talde bat gonbidatzen dute saiora; aurtengoan, lerrootako protagonistak ikusiko dituzue saioan. HarEman egitasmoko sorterri ezberdinetako usurbildarrek hartuko dute udaletxe aurreko plaza.

Bikote guztiok Zabalduz kooperatibaren bitartekaritzaren bidez hasi ziren harremantzen. Elkarrizketatu ditugun bikoteek, ordea, naturalki segida emango diote eraikitzen joandako laguntasunari. "Berdin biltzen segiko dugu", iragarri du Mattinek. Urrats berriak eman asmo dituzte. "Entrenatzen batera hasiko gara", iragarri digu Aasrafek. Hartara, "nirekin hartuemana indartzearekin batera, jende gehiagorekin harremantzeko aukera izango du", Mattinen esanetan. "Ez dakit astero izango den. Baina edozer behar izanda, kontaktuan egon ahalko gara", aurreikusi du Martiarenak.

"Hobetzen laguntzen du"

Aurrerago, kide berrientzako izen-emate deialdirik balego, parte hartzea zergatik izan daitekeen garrantzitsua galdetu diegu laukote elkarrizketatuari. "Oso interesgarria da elkar eragin ahal izatea bertako usurbildarrekin. Hortik nire ikasteko interesa. Horregatik, proiektuak segi behar luke, behar bati erantzuten baitio", Carolinaren esanetan. HarEmanen onurak nabarmendu ditu Aasrafek. Parte hartuta, "ez zara etxean sartuta egongo. Jendea ezagutzeko aukera izango duzu". Bertan bizi direnak deitu ditu Mattinek. "Aurreiritziak alboratu eta pausoa eman. Errealitate berriak ezagutzeak pertsona eta herri gisa hobetzen laguntzen du".

"AUKERA BAT DA HAREMAN, JENDEA ETA KULTURA BERRIAK EZAGUTZEKO"

AMAIA MARTIARENA, MENTOREA

"ERREALITATE BERRIEN EZAGUTZAK HOBETZEN LAGUNTZEN GAITU"

MATTIN IRIBAR, MENTOREA



4-12 urte arteko 212 haur eta gaztetxok eman dute izena aurtengo edizioan.

Udajolas abiatzeko atzerako kontaketan

Ekainaren 18an Sutegiko auditorioan egin zen bileran, aurtengo edizioari buruzko argibideak jasotzeko aukera izan zuten gurasoek.

4-12 urte arteko 212 haur eta gaztetxok eman dute izena aurtengo Udajolasen; Haur Hezkuntzan dauden 67 haurrek eta Lehen Hezkuntzako beste 145ek. Guztira, 11 talde osatu dira Haur Hezkuntzan, 12 begirale izango dituzte. LH-n 15 talde osatu dira eta 16 hezitzaile izango dituzte. Ziklo bakoitzak, gainera, koordinatzaile bana izango du. Hauei, praktiketan arituko diren beste 9 hezitzaile gehiago batu behar zaizkie. Guztira, beraz, 212 haur eta 39 hezitzaileko lan-taldea osatuko da Udajolasen bueltan. Antolatzaileek helarazitako nabarmentzeko moduko zenbakiak, zalantzarik gabe.

Prestatzen

Datorren astean ekingo zaion ekimena prestatzeko lanketa betean dabiltza jada. Lehen bilerak eginda, programaketak prestatzen, irteerak antolatzen dabiltza. Formakuntza saioak jasota ekingo diote uztaileko udaleku ireki hauei.

Ohi bezala, Usurbilgo jaiak amaitu eta biharamunean, aurten uztailaren 3an abiatuko da Udajolas. Aurreko urteen antzera, astelehenetik ostiralera eskainiko da zerbitzu hau, hilaren 30era arte, goiz partean, eta lau orduz, 9:30-13:30 artean. Ostegunetan ez, egun horietan irteerak izango direnez, arratsaldeko 16:30ak arte luzatuko da eskaintza hau. Aurten hiru irteera egun finkatu dituzte uztailak lau ostegun izan arren; izan ere, hilaren 25a jaieguna izango baita.

OHI BEZALA, USURBILGO JAIAK AMAITU ETA BIHARAMUNEAN HASIKO DA UDAJOLAS

Pandemia garaian hasitako ohiturari jarraiki, maila bakoitzeko taldea frontoia, Dema plaza edota Askatasuna plazaren bueltako txoko ezberdinetan elkartuko da egunero 9:30ean. Taldeka bildu arren, gero dinamiketan denak elkarrekin egongo direla gogorarazi zuten antolatzaileek Sutegiko bilkuran.

Puntualak izatea galdegin zieten antolatzaileek parte hartzaile izango diren haurren gurasoei, egunero haurra eraman nahiz bere bila pertsona bera joatea. Edozein aldaketa balego edota egunen batean joan ezin duenak aurrez jakinaraztea antolatzaileei, lana errazte aldera.

Aisialdi eskaintza hutsetik haratago

Zerbitzu publikoa da Udajolas, bilera hasieran antolatzaileek nabarmendu zuten moduan. Udalaren lizitaziotik NOAUA! Kultur Elkarteak antolaturiko eskaintza hain zuzen, uda partean haurren hezkuntza ez formalaren alorrean, aisialdi tartean eragiten duena. Jolasa eta aisialdia ardatz izan arren, ordea, integrazioa, euskara eta herri ikuspegia txertatzea sustatzen du bere eskaintzan.

Hainbat zerbitzu udako ordutegian

Sutegi udal liburutegia

Aste hasieratik udako ordutegian zabalduko dute Sutegi udal liburutegia irailaren 9ra arte; astelehenetik ostiralera goizez irekiko dute, 9:30-14:00 artean. Uztaileko astelehenetan arratsaldez ere bai, 17:00-19:00 artean.

Oiardo Kiroldegia

Uztailean eta abuztuan udako ordutegia izango du indarrean ohi bezala Oiardo Kiroldegiak; aurten, ordea, berrikuntza nabarmen batekin, iazkoaren alderatuz gero. Izan ere, urtarrilaz geroztik gertatzen ari den moduan, igerilekuak eguerdietan zabalik segiko du baita udako hilabeteetan ere. Horrez gain, beste berrikuntza; abuztuan ez dute guztiz itxiko Kiroldegia. Igerilekua itxiko dute uztailaren 30eko eguerdiko 12:00etatik abuztuaren 18ra arte.

- Lanegunak: 07:00-20:15 (igerilekua 20:00).
- Larunbat, igande eta jai egunak: 09:00-13:00 (igerilekua 12:45).

Garbigunea

Atallu industriagunean kokatua dagoen zerbitzuko ordutegia urte garai honetara egokitu ohi dute urtero:

- Uztailaren 15era arte: astelehenetik ostiralera, 10:15-12:50 eta 16:00-18:50 artean zabalik; larunbatetan, 09:00-12:50 artean irekiko dute. Igande eta jai-egunetan itxita.
- Uztailaren 15etik irailaren 15era: astelehenetik ostiralera, 10:15-12:50 artean eta 16:00-18:20 artean. Larunbatetan, 09:00-12:50 artean. Igande eta jai-egunetan itxita.

Kzgunea

Ekainaren 28ra arte 9:00-13:00 artean zabalduko dute Usurbilgo KzGunea. Uztailean arratsaldez, 16:00-20:00 artean eta abuztuan itxita egongo da. Irailaren 2an irekiko dute berriz.

Gidabaimena euskaraz ateratzeagatik saritua

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek sektore hau euskalduntzeko abian duten egitasmoari esker, 400 euroko saria eskura daiteke.



Elur Zaldua Elortzak Oxkar Santamaria zinegotziaren eskutik jaso zuen saria.

Ekimenarekin bat egiten duten eskualdeko autoeskoletan gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzeko hautua egiten dutenek 400 euroko saria irabazteko aukera izaten dute, sustatzaileek urtero egiten duten zozketan. Zozketa bera berriki egin dute Usurbilgo Potxoenean. Autoeskola adina sari zozketatzen dira. Usurbilen, autoeskola bakarra egonik, saritu bat izan da; Elur Zaldua Elortza. 400 euroko saria eskuratu du gidabaimena bere ama-hizkuntzan eskuratzea erabaki eta erabaki hau gauzatu izanagatik.

Eskualdeko aipatu sei udalek eta bederatzi autoeskolek parte hartzen dute egitasmo honetan; tartean, Usurbilgo Solozabalek. Elur eta zozketan saritutako gainerako eskualdeko herritarrak, iaz gidabaimena euskaraz atera zutenak dira, 2023koak. Aurten hautu bera egiten dutenen arteko zozketa, beraz, 2025ean egingo da.

1.310 herritar, euskaraz

Egitasmo hau martxan jarri zutenetik 2010. urtean geroztik eskualdeko 1.310 herritarrek eskuratu dute gidabaimenaren zati teorikoa euskaraz.

Gonbita egina

Usurbilgo Udalak berriki jakinarazi zuen moduan, Buruntzaldeko udalek, tartean Usurbilgoak, 18 urte bete dituzten herrikideei gutun bidez gidabaimena euskaraz ateratzeko gonbita helarazi diete. Eskualdean egitasmo honekin bat egin duten autoeskola hauetan eman daiteke izena:

- Andoainen: Bengoetxea eta Vallina Cap.
- Hernanin: Hernani, Lagunak eta Otamendi.
- Lasarte-Orian: Mugica eta Vallina Cap.
- Urnietan: Solozabal.
- Usurbilen: Solozabal.

Kalitatezko eskaintza

Gidabaimena euskaraz eskuratzea sustatzeko azken aldian emandako aurrerapausoei buruzko xehetasunak eskaini dituzte sustapen lanetan diharduten Buruntzaldeko udalek.

Berriki Potxoenean eginiko zozketa bidez jakinarazi dituzte Buruntzaldeko udalek gidabaimena euskaraz eskuratzeko eskualdean abian duten egitasmoari buruzko berrikuntzak. Izan ere, gogorarazi dutenez, "berriki, kalitatezko eskaintza bermatzeko aurrerapausoak eman dira". Bi dira jorratu dituzte lan ildoak. Batetik, aurreko ikasturtean, "2022-23 ikasturtean, Errenteriako Don Bosco ikastetxean, Goi Mailako D ereduko ziklo bat eskaintzen hasi ziren, autoeskolako irakasleak prestatzeko. Klase teorikoak eta praktikoak euskaraz emateko formazioa jaso dute bertan irakasle gaiek. Orain aterako da lehen promozioa, 2024ko ekainean".

ELUR ZALDUA ELORTZAK 400 EUROKO SARIA ESKURATU DU GIDABAIMENA EUSKARAZ IKASTEAGATIK

Bestalde, "EAEko Autoeskolen Federakuntzak, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin, gidabaimena euskaraz ateratzeko material berria argitaratu du, eskuliburu teorikoak, bideoak eta azterketa egiteko materiala barne. Materiala ordenagailuz zein mugikorrez ere erabili ahal izango da, horrela, nahi den garaian eta tokian ikasteko aukera emanez".

Parte hartzea sustatzea xede

Berrikuntza hauekin parte hartzea suspertu nahi dute egitasmo honen sustatzaileek. Izan ere, "orain arteko bilakaera datuek erakusten dute 2019az geroztik beherantz egin duela auto-eskoletan izena euskaraz emandako ikasle kopuruak. Azken berrikuntzekin, ordea, aukera polita izango dute gure gazteek, inolako oztoporik gabe, azterketa euskaraz prestatzeko. Buruntzaldeko udalak, behintzat, horretan ahaleginduko gara".

Izan ere, bide honetan urrats gehiago eman asmo dituzte. "Aurrerapausoak emateko eta euskararen erabilera sustatzen jarraitzeko jarrera irmoa dugu, eta argi dugu Buruntzaldeko herritarrak gidabaimena ateratzeko orduan ere euskararen aldeko hautua egitera bideratzeko lanean segituko dugula".

Gazteak ere egitasmo honetan parte hartzera deitu dituzte. "Baztertu aurreiritziak eta hautsi inertziak! Gidabaimena euskaraz!".

Dirulaguntzak

2023-24 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenek nahiz euskara ikasten aritu direnek, ostiral honetan izango dute dirulaguntza eskabideak aurkezteko azken eguna.

Kalezarrek gogotik piztu du festen suziria



Euriak ez zuen eragotzi San Joan sua piztea.



Eskean irtendakoen dantza giro bizian eta bertsotan piztu zuten San Joan sua.

Bazen festarako gogoa. Beste behin, bizi asko ekin diogu urte garai honetako jaien denboraldiari; ohi bezala, Kalezarren. Ospakizunez beteriko asteburua izan dute bertan, auzoa eta auzokideak erdigunean jarri dituenak. Izan ere, herri kirolen bueltan ikusi genituen lagunarteko lehian, estreinakoz afaritarako ere festa gunean bertan bildu ziren. Haurrentzako ekintza eskaintza zabaleko eguna ere izan zuten hilaren 22an. San Joan bezperako eskea etxez etxe auzoan barrena ibili zen, bertsolari eta musikariekin. Euriak eragotzi ez zuen San Joan sua ere Pikaolan piztu zuten berriz. Auzotik auzoarentzat nahiz bertaratu nahi zutenentzat egin eta bizitako festak.



Orbeldi dantza taldearen emanaldiak abiarazi zituen Kalezarko jaiak.



Kalezarkoarekin, Orbeldik uda parteko festetako emanaldiei ekin die.



Auzotarren arteko herri kiroletako lehian parte hartu zuten gazteak.



Lasterka, lokots nahiz sagar bilketan... lehiatu ziren Kalezarko gazteak.



Sokatiran lehia estua izan zuten Kalezarko gazteek.



Zendu zeneko 10. urtemugan ere Jontxu gogoan, bizileku zuen Kalezarren.



Jaiak hasteko, aurten estreinakoz, auzo afarian bildu ziren kalezartarrak.



Umeen Eguneko tailerretan entretenituta parte hartzaileak.



Antolakuntzak proposaturiko jolasetako batean haurrak, talde lanean.



Umeen Eguneko globo harrapaketan haurrak, bizi asko.



Umeen Egunari ekiteko egin zuten gaztetxoenen krosa.



Euripean, San Joan eskean irtendako taldea.

Harane eta Zubietako zelaiak, Donosti Cup-en jokaleku

Uztaileko lehen astean jokatuko den gaztetxoen arteko 32. Donosti Cup Usurbilera helduko da aurreko urteen antzera. Batetik, Usurbil FT-ren hiru taldeek lehiatuko dute nazioarteko futbol txapelketa honetan. Bestetik, hainbat neurketa Harane eta Zubietako zelaietan jokatuko dira.

28 herrialdeetako 910 talde, 15.000 parte hartzaile, 2.254 neurketa... Zenbakiotan laburbildu daiteke, uztaila hasieran jokatuko den 32. Donosti Cup nazioarteko futbol txapelketa. Beste behin, edizio hau ere udalerri honi lotua egongo da. Izan ere, batetik, hainbat partida Harane eta Zubietako zelaietan jokatuko dira. Horrez gain, Usurbil FT-ren hiru talde lehiatuko dira hitzordu honetan.

Uztailaren 2an 21:30ean Reale Arenan egingo den inaugurazio ekitaldia, baina lehen faseko neurketa gehienak uztailaren 2tik 4ra jokatuko dira, baten batzuk uztailaren 1ean. Fase horretatik, "talde bakoitzeko lehenengo bi taldeak Champions Leaguerako sailkatuko dira, eta hirugarren eta laugarren postuan daudenak Europa Leaguerako". Azken faseko partidak uztailaren 5ean eta 6an jokatuko dira. Finalak, uztailaren 7an donosticup.com atariak jakitera eman duenez.

Segidan dituzue zerrendatuak Usurbil FT-k lehiaketa honetara aurkeztuko dituen hiru taldeei buruzko xehetasunak, baita Haranen zein Zubietan jokatuko diren neurketen hitzorduen zerrenda.



Usurbil Cupeko hainbat partida Harane eta Zubietako zelaietan jokatuko dira. Horrez gain, Usurbil FT-ren hiru talde lehiatuko dira.

Usurbil FT

B13-T Taldea:

Entrenatzaileak: Ander Ayuso Casanova eta Mikel Nazabal Aburuza.

Jokalariak: Beñat Algorta Erro (atezaina), Alain Maiz Durandegi (defentsa), Ekhi Matxain De La Cruz (defentsa), Ekhi Nazabal Lizaso (defentsa), Haritz Herrera Fabrega (defentsa), Xabier Santos Martin (defentsa), Xuban Karrera Ullate (defentsa), Adur Arrillaga Serrano (erdilaria), Aiur Belaustegi Etxebarria (erdilaria), Beñat Arozena Alguacil (erdilaria), Ekain Alejo Goicoechea (erdilaria), Eñaut Soroa Mitxelena (erdilaria), Markel Alejo Goicoechea (erdilaria), Martin Ayuso Iturain (erdilaria), Haitz Oliva Etxaburu (aurrelaria), Jon Salsamendi Auzmendi (aurrelaria), Markel Insausti Aizpurua (aurrelaria), Odei Agorreta Arrozpide (aurrelaria), Peru Arruti Arruti (aurrelaria).

Partidak:

• Uztailak 1, astelehena: 18:15 Usurbil FT-Tolosa CF
• Uztailak 2, asteartea: 19:30 Albion San Diego (AEB)-Usurbil FT
• Uztailak 3, asteazkena: 15:30 Set11 Esports-Usurbil FT
• Uztailak 4, osteguna: 16:30 Usurbil FT-Big Talent Mexico

B12-AA Taldea:

TALDE BAKOITZEKO LEHEN BI TALDEAK CHAMPIONS LEAGUERAKO SAILKATUKO DIRA

Entrenatzaileak: Luis Francisco Garcia Fernandez, Juan Manuel Martin Diosdado.

Ordezkaria: Ignacio Maria Arregui Lopetegi.

Jokalariak: Hodei Sarasua Galan (atezaina), Enaitz Beristain Merino (defentsa), Enaitz Garcia Usandizaga (defentsa), Eneko Arregui Gazpio (defentsa), Joanes Lope Garcia (defentsa), Xabier Nacenta De Miguel (defentsa), Alex Alkorta Errasti (erdilaria), Ekhi Martin Gonzalez (erdilaria), Oier Jauregi Salaberria (erdilaria), Markel Korta Fernandez (aurrelaria), Mateo Piñeiro Ardanaz (aurrelaria).

Partidak:

• Uztailak 2, asteartea: 10:00 Usurbil FT A-Albion Elite Red (AEB)
• Uztailak 3, asteazkena: 17:45 Aviron Bayonnais FC-Usurbil FT A.
• Uztailak 4, osteguna: 10:00 Usurbil FT A-DNA Soccer (Katalunia).

B12-AB Taldea:

Entrenatzaileak: Jesus Calvo Estevez, Enrike Huizi Olaizola.

Ordezkaria: Ainhoa Torcida Olasagasti.

Jokalariak: Aner Calvo Unanue (atezaina), Jon Pallero Molina (defentsa), Kelley Kismaro Kismaro (defentsa), Martin Otaduy Sagarna (defentsa), Unax Lope Lizargarate (defentsa), Chenxiang Zhang Zhang (erdilaria), Mikel Sanchez Conde (erdilaria), Telmo Huizi Jauregi (erdilaria), Xabier Martin Recio (erdilaria), Luken Etxabe Agirretxe (aurrelaria), Unax Errasti Torcida (aurrelaria).

Partidak:

• Uztailak 2, asteatea: 12:15 Usurbil FT B-Albion Riverside (AEB).
• Uztailak 3, asteazkena: 16:30 Vasconia CD B-Usurbil FT B.
• Uztailak 4, osteguna: 16:30 Usurbil FT B-FPT Academy (Katalunia).



Udal langileek kalean bildutako hondakin sorta bat. Irudia: artxibokoa.

Prebentzioa lehentasun, hondakinen kudeaketan

Hondakinak kudeatzeko eguneroko lana handitzen da festa egunetan. Usurbilgo Udalaren Atez Ateko Informazio Bulegoak eman dizkigu halako ospakizunetan hondakinak kudeatzeko izaten duten zereginei nahiz eremu honetan urteotan izandako bilakaerari buruzko argibideak.

Hondakinen sorrerak ez du etenik geure eguneroko bizimoduan, ezta, noski, herrian urtean zehar izaten ditugun ekimenetan ere. Halakoetan indartu egiten du Usurbilgo Udalak hondakinak kudeatzeko zerbitzua, hastear ditugun jaiotan egingo duen moduan. Atez Ateko Informazio Bulegotik NOAUA!ri jakinarazi diotenez, lehenik, "begiratu behar dena da aurreko urteetan zer egin eta egon den". Hitzordu bakoitzak bere berezitasun propioak dituela azaldu dute. Horregatik, kasuan kasuko antolatzaileekin jartzen dira hartuemanetan ekimena egin aurretik, "zer sortuko duten dimentsionatzeko". Horren araberako baliabideak, edukiontziak helarazten zaizkie, ohar batzuk jakinarazteareekin batera. "Beti esaten dugu, bi hondakin mota daudela ekitaldietan: batzuk edukiontzietan jasoko ditugunak; beste batzuk, edukiontzi kanpoan geratzen direnak", Atez Ateko Informazio Bulegotik azaldu dutenez. Azken horietan, bereziki lurrean amaitzen duten hondakin horiek, "beti saiatu behar dugu txukun kudeatzen".

Antolatzaileen lana, gakoa

Izan ere, dagoeneko Usurbilen atez ateko bilketa martxan jarri zela 15 urte bete dira aurten. "Usurbilen oso barneratua dugu sailkatu egin behar direla hondakinak", nabarmendu dute hondakinen kudeaketaz arduratzen den udal bulegotik. Gogorarazi dutenez, ordea, festa giroko ospakizunetan "ezin dugu ahaztu, hondakinak hor daudela". Hain zuzen, gaineratu dutenez, "festa giroan oso erraza da, berrehun lagunek egoki egindako hondakinen kudeaketa bik nahastea", eta hau herritarrok presente izateko deia egin dute; "herritar moduan, arreta jarri behar dugu eta ardura hartu geronek jaietan sortzen ditugun hondakinekin". Bereziki antolakuntza taldeetan egin den lana goraipatu dute. Esaterako, berriki, maiatzean izan genuen 41. Sagardo Eguna jarri dute adibide moduan. "Aurten, edukiontzien baitan hondakinen %1 baino ez da izan errefusa, gainerako %99a birziklatzera bidali dugu", berri eman dute. Hori hala izatea antolatzaileek ahalbidetzen dutela nabarmendu dute. "Hor lan handia dago eta hori antolatzaileek egiten dute", sarritan herritarrontzat ikusezina den ahalegina, "baina ikusi beharko genukeena".

"ARRETA JARRI BEHAR DUGU ETA ARDURA HARTU, GERONEK JAIETAN SORTZEN DITUGUN HONDAKINEKIN"

Erabilera bakarrekoak uzten

Ospakizunetan, bereziki, organikoa, plastikoa eta tamaina handiko kartoiak dira gehien biltzen dituztenak. Jaietako parranda ostean, plastikoa baino ikusten ez ziren urteak igaro dira. Aldaketa nabarmena zerk eragin zuen gogorarazi dute; garai bateko erabilera bakarreko edalontziak kentzea erabaki zuteneko momentuaz ari dira. Ordutik egoera oso bestelakoa da, hobera egin du nabarmen, parranda osteko egunetan herriko kaleek goizaldean duten itxura. Halere, zer hobetu badugu oraindik; festetan erabilitako edalontzi, botila, plastiko eta bestelakoak oraindik kaleko txokoetan egoten dira biharamunean. "Beirazko edalontziak batetik, berrerabilgarriak direnak bestetik, sailkatu behar dira, kaleak garbitu aurretik. Lan handia izaten da".

Hortik herritarroi zuzenduriko ardurarako deia. Edalontzi berrerabilgarriak berriki, Uxue Trail lasterketan baliatu dira estreinakoz. Probak "oso ondo funtzionatu du". Ildo horretan segi nahi dute, prebentzio lanean, besteak beste, erabilera bakarreko materiala ordezkatzen. Iaz, proba moduan, "baxera aldatu zen, beirazkoa jarri genuen" eta "iazko balorazioetan, oso harrera ona izan du". Edalontzi berrerabili dezente galtzen direla eta, horri lotutako nahiz orohar, Usurbilgo auzo eta herrietako festei begirako lanketa ere bideratzen ari dira.



Ezkerretik eskuinera Axier Dominguez, Pablo Perez eta Xabi Lazkano, kadete nesken futbol taldeko entrenatzaileak.

"Inoizko zifra onena: lau neska talde"

Usurbil FT taldeko jubenil mutilek maila igoera lortu eta aste pare batera kadete neskek ere igoera erdietsi zuten ohorezko kadete mailara. Entrenatzaileek aditzera eman digutenez, "lehiarako sortutako taldeekin neurtu beharko ditugu indarrak".

Berriki mailaz igotzea lortu duzue. Zein mailatatik zein mailatarako jauzia izan da?

Axier Dominguez: Gipuzkoan kadete nesketan bi kategoria daude. Gu aritu garena Lehenengo Kadete maila izango litzateke eta beste mailara igotzea lortu dugu: Ohorezko Kadete mailara. Ohorezko Kadete mailan aurkituko ditugu Gipuzkoako talde onenak.

Xabi Lazkano: Horien artean aurki ditzakegu Erreala, Antiguoko, Añorga… Orain geunden mailan herriko talde asko daude, gure antzekoak. Belaunaldi bakoitzean herrian formatutako futbolariak dituzten taldeak izan ohi dira, herritarrez osatuak. Hori horrela izanda, igoera lortzea gauza handia da. Datorren urtean aurrean izango ditugun taldeak selekzio modukoak dira, inguruetako jokalari onenak fitxatuta osatutako taldeak, nolabait. Lehiarako sortutako taldeekin neurtu beharko ditugu indarrak, fitxaketa onenekin osatutako taldeak. Horien aurka jokatzera iritsiko gara herriko talde batekin. Oso zaila da horretara iristen.

Klubean gutxitan ikusitako igoera izan da?

X.L: Guk bitan baino bizi izan ez dugun gertaera izan da. Nesken kasuan, oraindik eraikitzen ari den eskailera moduko bat da. Belaunadi batetik bestera ikaragarri aldatzen da eta inoiz ez dago jakiterik zer etorriko den. Ez da gauza bera duela zortzi urte kadete lehen urtera iritsiko zen taldea edo jokalaria eta orain iristen dena. Orain formakuntza gehiago dute eta beste ohitura batzuk dituzte. Aurredenboraldian egoera ikusten dugu, baina klubak ez digu kirol helburu berezirik jartzen. Formakuntza lana egiten dugu eta gozatzeko egiten dugu lan. Neskak gustura sentiarazi eta emakumezkoen futbola bultzatzea ditugu helburu.

A.D: Talde batzuetan helburu gogorrak izaten dituzte igoerak lortzeko edo dena delakorako. Guk ez daukagu halako presiorik.

"ORAIN NESKEK FORMAKUNTZA GEHIAGO DUTE ETA BESTE OHITURA BATZUK IZATEN DITUZTE"

Aurreikuspenei lotuta, jokalariek jarraitzeko asmoa dute edo asko alda daiteke taldeko panorama?

A.D: Jokalari asko hurrengo mailara igoko dira eta bigarren taldetik igoko dira asko maila honetara.

X.L: Nesketan hiru urte izaten dira kadete mailan eta ondoren, erregional mailara pasatzen dira zuzenean. Nesken futbolean ez dago jubenil mailarik egun. Hirugarren urtean fitxak jubeniltzat hartzen ditu jokalariak, baina benetako jubenil maila sortu eta liga izateko nahiko talderik ez dagoenez, hirugarren urtean kadeteekin jokatzen dute. Salto handia izaten da kadeteetatik erregionalera pasatze hori, azken maila horrek helduago guztiak biltzen dituelako eta 17-18 urteko neskei 30 urte ingurukoen kontra ere jokatzea tokatzen zaielako. Aldaketa handia da hori.

Igoera lortuta, datorren urtean taldea izango du Usurbil FTk Ohorezko Mailan, beraz.

A.D: Oraindik zenbakiak egiten ari gara. Klubaren ikuspuntutik garrantzitsua da eskaintzen ari garen hiru kategoriak bermatzea. Duela zortzi urte ez zegoen talde bat bera ere, eta gerora, infantil taldea sortu zen, eta azken urteetako eboluzioaren bidez lortu dugu hiru kategoriatan taldea izatea: infantilak, kadeteak eta erregionalak. Aurten lau talde izan ditu klubak nesketan, inoizko zifrarik onena. Alde horretatik, nik uste oso garrantzitsua dela hiru egiturak mantentzea. Jende kopuruaren arabera ikusi beharko da zer eta nola egin.

X.L: Garrantzitsuena gustura egotea da. Bai, noski, eman nahi diogu garrantzia kirol arloari lehiaren esparruan, baina jokalariak gustura egon eta egitura indartsu bat sortzea da beharrezkoena. Hala, beti egongo da infantil talde bat,

⟶ kadete talde bat eta erregional talde bat, gutxienez. Futbolean jokatu nahi duen edozein neska usurbildarrek aukera izan dezan jokatzeko.

Jokalari askoko taldeak izan dituzue?

A.D: Bi kadete talde izan ditugu eta talde bakoitzean 17 jokalari.

Pablo Perez: Gure taldean hiru adinetako jokalariak izan ditugu, kadete mailako hiru adinetakoak. Beste taldean, denak urte berekoak dira.

X.L: Arazo ona izan dugu horrenbeste jokalari edukita. Talde bakarra izanda, jokalari askori jokatzeko aukera bermatzerik ez zegoen, eta bigarren taldea osatzeko, berriz, infantil mailako neska batzuk igo behar izan ditugu kadeteekin jokatu ahal izateko.

Postu bakoitzean nahikoa jokalari badaude, orduan.

P.P: Urte osoa atezainik gabe egin dugu, jokalariak txandakatuz. Datorren urterako ere, 26 bat neska izango lirateke, baina atezainik ez, printzipioz.

A.D: Ohorezko Kadete mailan panorama horrekin aritzeari buelta bat eman behar zaio ikusteko ea merezi duen.

X.L: Alde batetik ohore handia da maila horretan jokatzea, baina Realaren aurka hogei gol jaso eta beste talde askorekin ere 10-16 gol jasota etxera itzultzeak merezi duen aztertu beharra dago. Atezain bat izan genuen aurredenboraldian, baina segituan erabaki zuen denboraldian aurrera ez jarraitzea.

Salto handia dago Ohorezko mailara?

X.L: Antiguoko B eta Añorga B izan ditugu denbora guztian aurretik denboraldi honetan. Horiek bigarren taldeak dira, baina gainontzekoak erabat menpean hartu dituzte. 6-0 edo 10-0 irabazi ohi zuten.



Usurbil FT taldeko neskak igoera lortu berritan, Harane futbol zelaian.

Hori ikusita, pentsa nolakoak izango diren klub horien A taldeak.

Zuek futbol jokalari izaten jarraitzen duzue? Zein izan dira zuen ibilbideak?

A.D: Nik oraindik jokatzen jarraitzen dut eta entrenatzaile lanetan esango nuke hau hamalaugarren denboraldia izan dela. Neskak entrenatzen bederatzi denboraldi izan dira. Kategoria guztiak pasatu ditugu bederatzi urte hauetan neskekin. Datorren urtean ere kadeteen entrenatzaile izango gara, hori da asmoa, behintzat.

X.L: Ni jokalari lanetatik erretiratuta nago. Pandemia baino lehen futbol zazpian ibiltzeko elkartu ginen urtetxo batzuetan, baina pandemiak hori ere berekin eraman zuen. Entrenatzen, berriz, eskola kirolarekin hasi nintzen 16 urterekin. Jada hamaika urte pasa dira ordutik. Lehen bi urteetan eskola kirolean aritu nintzenez, haurrek urte erdia futbola eta urte erdia eskubaloia egiten zuten. Garai hartan nesken talderik ez zegoen inongo mailatan. Hasi ginenean gu infantil taldearen sorrerarekin bat izan zen, eta belaunaldi hartako neskekin kategoria guztiak egin genituen. Talde hark bidea ireki zuen gerora ere taldeak sortzeko. Hortxe egon gara gu prozesu osoan zehar.

P.P: DBH4n hasi nintzen ni entrenatzaile. Besteek baino urte gutxiago daramatzat honetan, baina bederatzi badira dagoeneko.

Entrenatzaile titulu guztiak aterata dauzkazue?

A.D: Nik, adibidez, UEFA B arte daukat. UEFA C izaten da mailarik baxuena eta kadete arteko taldeak entrenatzeko aukera ematen du horrek. B izanda preferente arte entrenatzeko aukera ematen du.

Klubetik beti animatzen gaituzte tituluak ateratzera eta laguntza eskaintzen digute. UEFA C duela hiru urte atera nuen eta UEFA B duela bi.

X.L: Pablok eta biok begirale titulua atera genuen. Ez da zehazki futbol entrenatzaile izateko titulua, baina guk ematen diogun trataerarekin oso lotuta dago. Aisialdiko jarduera da futbola adin horietan eta nire asmoa denborarekin futboleko tituluak ateratzea da, baina oraindik ez daukat horietakorik.

P.P: Geroz eta titulu gehiago ari dira eskatzen eta profesionalizaziorako bidea irekita dago, nolabait.

Derrigorrezkoak dira entrenatzaile tituluak?

A.D: Geroz eta gehiago ari dira eskatzen.

X.L: Ezin dute jarri Pablo eta ni entrenatzaileak garela fitxan, beraz, ofizialki, paperean, taldearen entrenatzailea Axi da. Pablo delegatua da eta ni laguntzailea edo halako zerbait.

"KLUBARENTZAT GARRANTZITSUA DA FUTBOLEKO HIRU KATEGORIAK BERMATU AHAL IZATEA"

"URTE OSOA ATEZAINIK GABE EGIN DUGU, JOKALARIAK PARTIDURO TXANDAKATUZ"



"Ni edozein motatako prozesuetan laguntzeko prestatuta nago, bakoitzaren onena atera ahal izateko".

"Bokaziozko lana da nirea, jendeari laguntzeko xedez"

MARI MAR GOMEZ MARQUES COACH-A

Apirilaren 16an Ekintzailetzaren Nazioarteko Eguna ospatu zen eta gurean ere badira horretan hasi berriak diren herritarrak. Tartean, aste honetako gonbidatua.

Azkenaldian asko hitz egiten da ekintzailetzaz. Noiz eta nola erabaki zenuen ekitea?

Nik Gizarte Lankidetza ikasi nuen. Osasun arazoengatik lanik gabe geratu nintzen. Ez da erraza dibertsitate funtzionalarekin lan egitea, hainbat alderditan eragiten baitizu. Jende balioaniztuna bilatzen zuten, eta mugitzeko arazoak eta ikusmen-arazoak dituzunean, zaila halako eskaerei erantzutea. Gainera, gaixotasunaren agerraldi bat dudanean Zubietatik lantokira joateak asko zailtzen du egoera. Bolada txar baten ondoren bajan egon behar nuen eta bueltan bota egiten ninduten. Orain gauzak aldatzen ari dira, eta halakoak egitea ez da legezkoa, bidegabeko kaleratzea da. Duela hilabete batzuk, familiako eta inguruko hainbat zirkunstantziaren ondotik, eta lanik gabe nengoela ikusita, bide honi heldu nion. Bolada zail bat igaro nuen, eta hortik indartuta irtetea lortu nuen, eta hazkunde pertsonaleko prestakuntzetara joaten hasi nintzen, mindfulnessera, adimen emozionalera, coaching-era... hasiera batean niretzat, tresna gisa erabil nezan. Baina gero, pentsatu nuen horrek niri lagundu zidanez, beste batzuei ere lagun niezaiekeela. Nire lana izateko modu errazagoa iruditu zitzaidan agerraldi bat izanda ere. Etxean hobeto egon naiteke eta online lan egin. Azkenean, lan-merkaturako irteera bat da, modu errazagoa izan daitekeena, nahiz eta ekitea ez izan. Bokaziozko lana da, jendeari laguntzeko. Ez dut uste nire ibilbide profesionalean haustura izan denik, uste dut lan horrek aurrera jarraitzen duela, gizarte arloan esperientzia dudalako. Hainbat prozesutan laguntzen diot jendeari, eta batzuetan esperientzia hori izateak asko lagun diezazuke, pertsona horri gertatu zaiona ulertu ahal izateko. Bizi-esperientziak ere lagungarriak dira. Denok pasatu ditugu gauzak bizitzan, eta ulertua sentitzeak ere asko lagundu dezake.

"DENOK PASATU DITUGU GAUZAK BIZITZAN; ULERTUA SENTITZEAK ERE ASKO LAGUN DEZAKE"

"PERTSONA ASKO "IKASTETXE BEREZIETARA" JOAN DIRA, ETA ZAILA DA INTEGRATZEA"

Dibertsitate funtzionala duten pertsonen artean ohikoa da halako egoerak bizitzea?

Nahiko ohikoa da. Nik elkarte askotan parte hartzen dut dibertsitate funtzionala duten pertsonen eskubideen aktibista gisa. Zaila da prestakuntza eta hezkuntza txikitatik jasotzea eta lan-merkatuan sartzeko erraztasunei erreparatuta, zer esanik ez. Enplegu babestuari buruzko iragarkiak oso maiz egiten dituzte, eta oso politak dirudite, baina errealitatea oso bestelakoa da. Gaztelaniaz esaten den bezala: "Begibakarra erregea da itsuen munduan". Desgaitasunari dagokionez, desgaitasunaren maila edo izan ditzakezun eragozpenak desberdinak dira pertsona batetik bestera. Gainera, pertsona askok ez dute hezkuntza jasotzeko aukerarik izan, eta horrek asko zailtzen du prestakuntza horretan oinarritutako lana aurkitzea. Txikitatik prestakuntza jasotzeko aukerarik izan ez baduzu, oso zaila da. Asko "ikastetxe berezietara" joan dira, eta zaila da besteekin integratzea. Hala ere, askok ez dute aukeratzeko modurik izaten, beste erremediorik ez eta horietara jo behar. Niri txikitatik irakatsi didate inklusioa zer den eta ideia horien arabera bizitzen, eta bizi izan dudana norabide horretan joan da, baina pertsona bakoitza desberdina da, eta batzuetan beste bide batzuk



"Ni edozein motatako prozesuetan laguntzeko prestatuta nago, bakoitzaren onena atera ahal izateko".

⟶ aukeratzen dituzte; pertsonaren beharren arabera. Oinarrizko eskubide asko zapaltzen dituzte, eta pertsona asko beren familien mende daude zaindu ditzaten. Zaintza horiek familiako emakumeei dagozkie beti. Orain asko hitz egiten da pertsonarengan zentratutako zainketei buruz, eta ideia hori oso ondo dago eta hala izan beharko luke beti hezkuntzan eta gauza guztietan. NBEk ohartarazi du ideia horiek desinstituzionalizatu egin behar direla eta jendeak ez duela erakundeetan bizi behar. Laguntza pertsonala edo laguntzaile pertsonala bezalako baliabideak behar dira, jendea bere etxean bizi ahal izateko. Hori erakunde batean bizitzea baino merkeagoa da, baina negozio handia dago osasun mentalaren inguruan, dibertsitate funtzionalaren inguruan, adinaren inguruan... Bide jakin batzuk oztopatzen dituzten enpresen aldetik, interes asko daude. Ezjakintasuna izugarria da profesionalen aldetik eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen aldetik ere nabaria da. Pertsona batek ez ditu bere eskubideak aldarrikatuko, ezagutzen ez baditu.

Sakrifizio asko egin behar al dira?

Ekitea zaila da. Programa batzuek prestatzen laguntzen dizute, baina bide hori bakarrik egiten duzu. Ekiten hasten zarenean, zeure burua ezagutzera eman behar duzu, eta nire lanean gutxien gustatzen zaidan zatia izan arren, ezinbestekoa da pauso hori ematea. Inor ez da etorriko nire atea jotzera edo zer egiten nabilen galdetzera, eta are gutxiago nitaz ezer jakin gabe zerbitzuak eskatzera. Orain emakume ekintzaileen sareak ezagutzen ari naiz. Batzuetan, arlo horretako jendea ezagutzen ez baduzu, ez dakizu nori galdetu sortzen zaizkizun zalantzei buruz, edo ez duzu erreferentziarik. Lagunak, bikotekidea, familia eta ingurune segurua izan arren, arlo horretan lan egiten duen jendea ezagutu behar duzu.

Instituzioek gero eta gazte gehiago animatu nahi dituzte ekitera. Nola ekin diezaiokegu ekintzailetzaren bideari?

Ni hasita nago, eta oraindik ia dena dut ikasteko. Gauzak etorri ahala ikasten ari naiz. Asko inbertitu behar da hasteko, baina hasten bagara, gure partetik guztia jarri behar dugu eta egiten dugun guztian pasioa jartzea beharrezkoa da. Prestakuntza ez da inoiz amaitzen, gizarte-arloan dena etengabe aldatzen ari delako eta bizitza osoan ikasten jarraitzeko jarrera izan behar duzulako. Asko inbertitu behar da prestakuntzan eta dena bakarrik egiten ikasi behar da. Enpresa batek norbaiti ordaindu ahal izango dio sare sozialen gaia eraman diezaion, baina horretan hasten garenean bakarrik egitea besterik ez zaigu geratzen.

"PERTSONA BATEK EZ DITU BERE ESKUBIDEAK ALDARRIKATUKO, EZAGUTZEN EZ BADITU"

Noiz eta nola hartu zenuen coach gisa hasteko erabakia?

Udan gai honekin burubelarri jartzea erabaki nuen eta ikastaro trinko batean izena eman nuen. Hilabeteak behar izan ditut bulegoa prestatzeko eta kudeaketa guztiak egiteko. Ilusio handiz hartzen ari naizen prozesua da, eta nire bikotekidea asko laguntzen ari zait. Ibilbide motela da, baina irailean has nintekeen lanean, eta dena oso bizia izaten ari da. Dibertsitate funtzionaleko hainbat elkarterekin lankidetzan jarraitzen dut, gizarte-integratzaile gisa aholkatzeko, eta hainbat proiektu ditut esparru horretan. Epe luzera, horrek aukera eman diezadake dirulaguntzak lortzeko eta haiekin coach gisa lan egiteko. Oso garrantzitsua da haiekin ahalduntzearen gaia lantzea. Ni edozein motatako prozesuetan laguntzeko prestatuta nago, bakoitzaren onena atera ahal izateko.

"NIREKIN HASI DEN JENDEA OSO POZIK DAGO ETA HORREK BENETAN ZORIONTSU EGITEN NAU"

Zer pauso eman behar dira hasi ahal izateko?

Nik informazioa eskatu nuen Tabakaleran, eta Aldundiak hainbat proiektu ditu ekintzailetzaren hasierako etapan laguntzeko. Duela hilabete pare bat hasi nintzen hitzordu hauetara joaten eta oraindik ere horretan jarraitzen dut. Orain arte senez funtzionatu dut, zer eta nola egin oso ondo jakin gabe. Banekien gustatzen zitzaidala eta bezeroak behar nituela abiatzeko.

Oraindik hasiberria naiz eta dena gurpil gainean doala esan nahi nuke, eta batzuetan sentsazio hori izan arren beste batzuetan ez da hala. Bide luzea da eta badakit ez duela fruiturik emango egun batetik bestera. Denbora eskaini eta ahalegin handia egin behar da. Nirekin hasi den jendea oso pozik dago eta horrek zoriontsu egiten nau. Jende askok ez daki zer den coach bat, eta aurretik asko pentsatu behar du pausua emateko. Jendeak ezagutu behar zaitu, eta zutaz iritzi positiboa izan behar du, konfidantzazkoa, gauza intimoak kontatu behar dizkizulako. Bezeroak ez dira beste lan batzuetan bezain erraz etortzen.



Santixabel jaietako Umeen Eguna uztailaren 1ean ospatuko da, astelehenarekin.

6 egun, 11 ekitaldi

Ekainak 27, osteguna

• 16:00 Pala txapelketa: kirol egokituen erakustaldia eta binakako finala.
• 17:00/19:00 '1371-1971' ikusentzunezkoa Sutegin.

Ekainak 28, ostirala

• 06:00 Oilasko-biltzaileen gosaria eta irteera, txosnetatik abiatuta.
• 10:00-13:00 Puzgarriak frontoian.
• 14:00 Oilasko-biltzaileen itzulera eta bazkaria.
• Ondoren, Hysteriaren kontzertua.
• 16:00 Diskofesta Gaztelekuan.
• 16:00 Kolore Festa Artzabalen.
• 18:00 Kolore Festako opari banaketa.
• 18:30 Jaixkipe txaranga frontoian.
• 19:00 Txupinazoa eta ikurrinaren igoera, adineko emakume zaintzaileen eskutik.
• Ondoren, herri kalejira buruhandi eta erraldoiekin.
• 20:00 Gazte txupinazoa eta txosnen irekiera.
• 22:30 Erromeria: Laket.
• Ondoren, kontzertuak txosnetan: Neallta Fola, Ziztada&Rlantz eta DJ Zer?

Ekainak 29, larunbata

• 12:30 Herri kirolak: herritarrez osatutako bi talde lehian: txinga, trontza, aizkora, korrika, giza proba, harri jasotzea.
• 13:30 Fanfarrikant Brass Band.
• 14:00 Zikiro jana, Askatasuna plazan.
• 17:30 Errekortariak eta sokamuturra Udarregin.
• 18:00 Txosnetan kontzertua: Tik Tara.
• Ondoren, Laskotxaranga.
• 18:30 Buruhandi eta erraldoiak.
• 23:00 Kontzertuak frontoian: Ameba eta Dupla.
• Ondoren, kontzertuak txosnetan: Ezpalak taldea eta DJ Reimy.

Ekainak 30, igandea

• Egunsentian, Hamarru elektrotxaranga.
• Ondoren, gaupaseroen argazkia.
• 11:00 Bola txapelketa.
• 12:30 Joaldunak.
• 14:00 Jubilatuen bazkaria, Atxega Jauregian.
• 18:00 Herriko dantzariak frontoian.
• 18:30 Poteo elegantea txosnetatik abiatuta.
• 19:00 Bertsolariak Joxe Martin Sagardia plazan: Amets Arzallus, Maider Arregi, Uxue Alberdi eta Xabat Galletebeitia. Gai-emailea: Maite Berriozabal.
• 20:30 Erromeria frontoian: Itzal.
• Ondoren, kontzertuak txosnetan: Akaleia, Ithaka eta DJ La Fulana.

Uztailak 1, astelehena

• 09:45 Haur eta gazteei harrera, Joxe Martin Sagardia plazan.
• 10:00-13:00 Txikienentzat puzgarriak frontoian.
• 10:00-12:00 Gaztetxoentzako erronka. (LH5etik DBH2ra).
• 10:00-12:00 Ginkana. (LH1etik LH4ra).
• 10:30-11:30 Txutxu trena. Eguneko Zentroa eta Artzabalgo Helduak.
• 11:30-13:30 Txutxu trena, Bordatxo aurretik.
• 11:00-13:00 Toka txapelketa eta Santixabel Igel Jokoa, Artzabalen.
• 12:30 Buruhandi eta erraldoiak.
• 13:00 Mojitada herrikoia.
• 13:30 Umeen bazkaria Artzabalen. (Norberak ekarrita).
• 14:30 Gazte bazkaria txosnetan.
• Ondoren, Anuk eta Elene.
• 15:00-18:00 Ur puzgarriak Artzabalen.
• 15:30-17:30 Txutxu trena, Bordatxo aurretik.
• 16:00 Mus txapelketa, Askatasuna plazan (Izen-ematea 15:30-16:00).
• 18:00 Distopia elektrotxaranga, txosnetatik abiatuta.
• 18:30 Txokolate jatea, Artzabalen
• 20:00 Tapia eta Leturia, frontoian.
• Jarraian, Bertsio Gaua txosnetan.

Uztailak 2, asteartea

• 09:00 Esnadeia, txistulariekin.
• 12:00 Sokadantza, Joxe Martin Sagardia plazan.
• Jarraian, lore eta salda banaketa.
• 12:30 Triku taldearekin kalejira.
• 17:00 LI. Esku pilota txapelketako finalak.
• 18:00 Buruhandi eta erraldoiak.
• 18:30 Paella lehiaketa txosnetan. (Izen ematea 18:00etan)
• 19:00 Puro Relajo musika taldea Artzabalen.
• 23:00 Maskota erretzea eta traka, Dema plazan.
• Ondoren, txosnetan: Pisoo&OPH raperoak, karaokea.

Erakusketa Sutegin

• 12:00-14:00/18:00-20:00 Zirriborro tailerrekoen eskulanak ikusgai Sutegiko aretoan.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Pisua salgai Aginagan, Elutx kalean. 3 logela, 2 bainugela eta sukaldea. Garaje marra eta trastelekua barne. 685711912.

ALOKAIRUAN

Bikote bat gara, etxe bila. Hilabeteka edo ahal bada denbora luzeagorako alokatu nahiko genuke. Mantentze lanak, zein jardineritza edo animaliak zaintzeko prest. Urgentzia daukagu. 624040689 edo +380985359777 whatsapez hitz egiteko.

San Esteban kalean 31m^2 lokal bat alokairuan. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajean egon da. 620098748

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Andatza tabernan lan egiteko, zerbitzari eta sukalde laguntzaile/sukaldari baten beharrean gaude.Garrantzitsua esperientzia izatea. 670654272.

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen 641136135.

Usurbil edo inguruetan garbiketa lanak egiteko prest, 74745055

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Etxeko garbiketako lanetarako nahiz toki gehiago garbitzeko lan bila nabil. Harremanetarako, hona deitu: 632 909 058.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia askorekin, 695 18 41 79

Garbiketa lan orokorrak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko, lan bila nabil. 607455413

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. 687126811

BESTELAKOAK

Pertsona helduentzako gurpildun aulkia salgai,berri-berria. Inovys II RG C markakoa. Oinak altuan jartzeko posizioa dauka eta burua eusteko soportea . Interesatuak deitu 666894283 telefono zenbakira (Ana).

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 27	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Ostirala, 28	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 29	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Igandea, 30	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Astelehena, 01	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Asteartea, 02	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Asteazkena, 03	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loiola 9, Lasarte / 943 01 95 21
Osteguna, 04	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Ostirala, 05	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Larunbata, 06	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 07	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.



HILDAKOEN BERRI EMATEKO:
943 360 321 edo ***erredakzioa@noaua.eus***
▶ Asteleheneko 17:00ak arte jasotakoak emango ditugu argitara.
▶ Gainontzekoak, hurrengo asteko astekarian.

ZORION AGURRAK



Zorionak Amaiur! Ekainaren 27a zure eguna da, dagoeneko 9 urte, zorionak familia guztiaren partetik. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu, "lagartija". Muxu potoloak.

HILDAKOAK



Maria Dolores Arribillaga Loiarte
Ekainaren 22an
hil zen, 97 urterekin

Zorion-agurrak

Posta elektronikoa
Mezua bidali *erredakzioa@noaua.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.
Etor zaitez gure bulegora bestela, edo telefonoz deitu: 943 360 321.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 28

USURBIL Santixabel jaiak

Oilasko-biltzaileak, puzgarriak frontoian, Diskofesta Gaztelekuan, Kolore Festa Artzabalen, txupinazoa eta ikurrinaren igoera, herri kalejira buruhandi eta erraldoiekin, Gazte txupinazoa eta txosnen irekiera, Erromeria, kontzertuak txosnetan...
Xehetasunak 20. orrialdean.

LARUNBATA 29

USURBIL Santixabel jaiak

Herri kirolak, Fanfarrikant Brass Band, zikiro jana, errekortariak eta sokamuturra Udarregin, buruhandiak eta erraldoiak, Kontzertuak frontoian eta txosnetan...
Xehetasunak 20. orrialdean.

IGANDEA 30

USURBIL Santixabel jaiak

Egunsentian Hamarru elektrotxaranga. ondoren gaupaseroen argazkia, bola txapelketa, joaldunak, jubilatuen bazkaria Atxegan., herriko dantzariak frontoian, poteo elegantea txosnetatik abiatuta, Bertsolariak Joxe Martin Sagardia plazan, Erromeria frontoian, kontzertuak txosnetan...
Xehetasunak 20. orrialdean.



Amets Arzallus, Maider Arregi, Uxue Alberdi eta Xabat Galletebeitia arituko dira kantari.

Igandean, bertso-saioa Joxe Martin Sagardia plazan

Soka-dantzarekin batera, bertso-saioa izango da Santixabel jaietako ekitaldirik beteranoena. Garai batean, bertsopaper lehiaketako sari banaketa egiteko baliatzen zen. Aurten ordea, ez da lehiaketarik antolatu. Eguraldia traba ez bada, udaletxeko plazan arituko dira bertsolariak. Igande honetan, arratsaldeko 19:00etan hasita.

Ekainak 30, igandea

- 19:00etan, Joxe Martin Sagardia plazan.
- Bertsolariak: Amets Arzallus, Maider Arregi, Uxue Alberdi Xabat Galletebeitia. Gai-emailea: Maite Berriozabal.
- 20:30 Erromeria frontoian: Itzal.
- Ondoren, txosnetan: Akaleia, Ithaka eta DJ La Fulana.

Zirriborro tailerraren erakusketa Sutegin

Ikasturtean zehar egindako lanekin erakusketa bat egiten dute jaietan. Aurtengoan bada berrikuntzarik. Marrazteko txoko bat prestatu dute. Beraz, Zirriborro tailerrekoek ikasturte honetan egindako lanak ikustera hurbiltzen direnek, marrazteko gune bat ere topatuko dute Sutegin.

KzGuneko ikastaroak

Uztailak 1, 16:00-18:00
"Egon zaitez aktibo Google Fit eta Wikilocekin".

Uztailak 3-16, 16:00-18:00
"Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi".

Uztailak 17-30, 16:00-18:00
"Eman lehenengo pausoak argazki ukituan GIMPekin".
• Informazio gehiago: 943 023 684

Jaiak amaitu berritan abiatuko da Udajolas

Jaiak amaitzearekin batera hasiko da Udajolas. 4 eta 12 urte arteko gaztetxoei zuzenduriko aisialdia eskaintza uztailaren 3tik 30era luzatuko da. Egunero goizeko 9:30ean batuko dira frontoian eta eguerdiko 13:30ean etxeratuko dira.

USURBIL DÖNER KEBAB
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK
Borda Berri Kalea, 5

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL


www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

‘ARTXIBO BILUZIA’ LIBURUA

Joan Mari Torrealdai bekari esker argitara emana

Egilea: Metrokoadroka sormen kolektiboa

Agitaratzaileak: Usurbilgo Udala, Jakin



ESKAERAK

943 360 321

elkartea@noaua.eus



NOAUAko bazkideei eskaintza berezia 17 euro

DENDAN 20 euro

1.000 ALEA

UZTAILAK 18, OSTEGUNA | Aginagako eliza zaharra

Sarrerak: usurbilkultura.eus | 6 euro (bazkideek 4 euro, NOAUA!ko egoitzan)

19:00 1.000. Alea ospatzeko ekitaldia

19:30 Maialen Lujanbio

eRRe(AH)ala ikuskizuna



ANTOLATZAILEA

OSASUN GIDA

eskura

elikadura eta dietetika aholkularitza

·diabetesa ·hipertensioa ·gizentasuna
·elikadura eta kolesterol arazoak

elikadura ohiturak zure neurria aldatzen laguntzen dizugu!

688 843 696 ZUBIAURRENEA 1, 1C USURBIL

MABIOK FISIOTERAPIA

Ekografietan, terapia inbasiboetan eta eskuzko terapietan adituak

- Lesio erreadaptazioa
- Diatermia
- Ariketa terapeutikoa



Alperro Buru kalea 1, BsB (20170)
T. 608 671 925 / 943 372 658
Sare sozialak: mabiok_fisioterapia
Webgunea: mabiokfisioterapia.com

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitez zure oinen eta posturaren azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik



ZENTA

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzen egokitzapena.

Osakidetzarekin hitzarmena

www.zenta.es



Errekalde 59, Donostia 943 105 205

Irati Ibargoien


FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA



Fisioterapia
Osteopatia
Haurdunaldia
Pilates terapeutikoa
Psikologia
Zoru pelbikoa

943 53 92 66
623 46 26 58

irati.ibargoien@gmail.com
Puntapax kalea 6B, behea ezk. Usurbil 20170
@ irati_ibargoien_fisioterapia www.iratibargoien.com



USURBIL OPTIKA

PROGRESIBO, URRUTIKO ETA GERTUKO BIGARREN LENTE PAREA DOAN!

2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



Bizi-Sena

Neuroenergetika terapiak nervio sistema orekan jartzea laguntzen du,lasaitasuna lortuz gure buirmuñean eta gorputzean

Karolina Lekuona
674 804 913

www.bizisena.es
info@bizisena.es
Santuenea 26 3° Eskubi (Usurbil)

·Dosifikazio sistema pertsonalizatua
·Dermofarmazia
·Produktu homeopatikoak
·Maisu formulak

Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika
33/22 P.E.Z.

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95